



UDAL BATZARRA 2018-05-02

-Txostena, Kontu-hartzailearena, Udalbatzari helaraztekoa: 2017 ekitaldian onartutako likidazioak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa.

Aztertuta ea 2017 ekitaldiko likidazioak betetzen dituen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua, egiaztatu da ez dela betetzen gastu araua.

Ez-betetze horrek, hasiera batean behintzat, Udala behartu egiten du plan ekonomiko-finantzario bat egitera, urtebetean egoera hori zuzendu ahal izateko.

Gastu araua ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, **plan ekonomiko-finantzarioaren orde, Kontu-hartzailetzako txosten bat helarazi beharko zaio Udalbatzari egoera hori jakinarazteko**; txostenean, halaber, erakundearen finantza-egonkortasuna aztertu eta neurtu egingo da (1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua eta

PLENO MUNICIPAL 2-5-2018

- Informe emitido por el Interventor sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y regla de gasto con motivo de la aprobación de la liquidación del presupuesto del 2017 y que será comunicado al Pleno de la Corporación.

Al analizar el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y de la regla de gasto, en la liquidación del presupuesto del 2017, se ha comprobado que se incumple la regla de gasto.

El incumplimiento anterior, en principio, obliga al Ayuntamiento a formular un plan económico-financiero que permita en un año la corrección de tal situación.

En el caso en que el incumplimiento de la regla de gasto se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, el plan económico-financiero **se sustituirá por la comunicación al Pleno de un informe de Intervención constatando tal circunstancia**, y en el que se analice y evalúe la sostenibilidad



Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 8an onartutako jarraibidearen 3. araua).

1.- Azterketa: Zer eragin izan duen Diruzaintzako Gerakina erabili izanak aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

2017ko martxoaren 22an, Alkatezaren Dekretuz, 4.862.383,44 euroko zenbatekoa zuen kreditu-txertaketari zegokion espediente onartu zen, 4.862.383,44€-ko zenbatekoa zuen Diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zena.

Jardunaldian zehar aurrekontuaren hasierako zenbatekoa gehitu egin zuten aurrekontu-aldaketak onartu ziren.

- 5.206,66 €-ko zenbatekoa zuten kreditu-gaikuntzen espediente batzuk, aurrekontuan hasiera batez aurreikusten ez ziren diru-sarrerekin finantzatutakoak.

financiera de la entidad. (Art. 5 de la Norma Foral 1/2013 y regla 3ª de la Instrucción aprobada el 8 de noviembre de 2016 por el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa)

1.- Análisis del impacto producido por la utilización de Remanente de Tesorería para la financiación de modificaciones presupuestarias.

Por decreto de alcaldía de 22 de marzo de 2017 se aprobó el expediente de incorporación de créditos por importe 4.862.383,44 €, financiados por remanente de tesorería por importe de 4.862.383,44€.

Durante el ejercicio se han aprobado modificaciones presupuestarias que han incrementado el importe inicial del presupuesto:

- Varios expedientes de habilitación de créditos, financiados por ingresos no previstos inicialmente en el presupuesto, por importe de 5.206,66 €.



- 2.009.038,33 €-ko zenbatekoa zuten Kreditu Gehigarrien espediente batzuk, Diruzaintzako gerakinarekin finantzatu zena.
- Varios expedientes de Créditos Adicionales por 2.009.038,33 €, financiados con Remanente de Tesorería.

Ondoko taula honetan, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuetako diru-sarreretan eta gastuetan dauden egoera bateratuak jasota daude, egindako aldaketak sartuta.

En el siguiente cuadro se recogen los estados consolidados de ingresos y gastos correspondientes a los presupuestos del Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos, incluidas las modificaciones llevadas a cabo durante el ejercicio.

DIRU-SARRERAK.

GASTUAK:

KAP.	Izena:	ZENBATEKOA	KAP.	Izena:	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak.	8.293.770,62	1	Pertsonala	14.884.321,92
2	Zeharkako zergak.	221.174,94	2	Ondasunak eta zer	10.241.896,21
3	Tasak eta prezioak	4.486.187,24	3	Interesak	31.664,66
4	Trans. arruntak.	21.319.774,01	4	Trans. arruntak.	3.854.043,87
5	Ondare sarrerak.	186.393,93			0,00
6	Inb. Besterenganatz.	0,00	6	Inbertsio errealak	3.717.959,40
7	Kapital transferentz	174.020,05	7	Kapital transferentzi	680.082,20
Diru-sarrerak, guztira (1-7 Kap.)		34.681.320,79	Gastuak, guztira (1-7 Kap.)		33.409.968,26
Defizita.		0,00	Superabita.		1.271.352,53



8	Finantza-aktiboak	85.253,78	8	Finantza-aktiboak	27.045,60
9	Finantza-pasiboak.	0,00	9	Finantza-pasiboak.	700.190,16
Finantza-sarrerak, guztira.		85.253,78	397.061,34		727.235,76
Diru-sarrerak, guztira.		34.766.574,57			34.137.204,02

INGRESOS

GASTOS

CAP	Denominación	Importe	CAP	Denominación	Importe
1	Imp. directos	8.293.770,62	1	Personal	14.884.321,92
2	Imp. indirectos	221.174,94	2	Compra bienes-serv	10.241.896,21
3	Tasa y precios	4.486.187,24	3	Intereses	31.664,66
4	Transferencias ctes.	21.319.774,01	4	Transferencias ctes.	3.854.043,87
5	Ingresos patrimonial	186.393,93			0,00
6	Enajenación inv.	0,00	6	Inversiones reales	3.717.959,40
7	Transferencias capit	174.020,05	7	Transferencias capita	680.082,20
Total ingresos(C1 ^º – C7 ^º)		34.681.320,79	Total gastos(C1 ^º - C7 ^º)		33.409.968,26
Déficit		0,00	Superávit		1.271.352,53
8	Activos financieros	85.253,78	8	Activos financieros	27.045,60
9	Pasivos financieros	0,00	9	Pasivos financieros	700.190,16
Total ingresos financieros		85.253,78	Total gastos financieros		727.235,76
Total Ingresos		34.766.574,57	Total Gastos		34.137.204,02

2017ko aurrekontu likidazioaren espedienteak 1.271.352,53 euroko **superabita du**, Europako kontuen Sistemaren (SEC) arabera. Ondorio horietarako, gerora doiketa egitea eskatuko lukeen eragiketa esanguratsurik ez denez aurreikusten, kalkulu hori -

El expediente de liquidación del presupuesto presenta un **superávit de 1.271.352,53 euros**, en términos del Sistema Europeo de Cuentas (SEC). A estos efectos, dado que no se prevén operaciones significativas que exijan un ajuste posterior, dicho cálculo se ha



aurreko laukian ikusten den bezala-sarreretakoa 1etik 7ra bitarteko kapitulu eta gastuetako 1etik 7ra bitartekoen artean dagoen aldea edo diferentzia bezala islatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

efectuado, tal como se observa en el cuadro anterior, como diferencia entre las previsiones de ingresos de los capítulos 1 a 7, y las previsiones de gastos de los capítulos 1 a 7, y todo ello en términos consolidados.

2017. urterako ezarritako helburua, defizita zero izatea da.

Para 2017 el objetivo establecido es de déficit cero

Hartara, 2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak BETETZEN DU aurrekontu-egonkortasunaren 2017rako helburua.

Por lo tanto, el expediente de liquidación del presupuesto de 2017 SI cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria.

Gastu araua:

2016. eta 2017. jardunaldien arteko gastu konputagarriaren aldaketa % 5,55koa da.

Regla de gasto

La variación del gasto computable entre 2016 y 2017 es del 5,55%

Aurreko kalkulu hori ateratzeko goian esandako entitate horien datu kontsolidatuak edo bateratuak izan dira kontuan hartu direnak. Honatx zehaztasunak:

Para realizar el cálculo anterior se han tenido en cuenta los datos consolidados de las entidades arriba relacionadas, de acuerdo con el siguiente detalle:

GASTU KONPUTAGARRIAREN ALDAKETA.		
a1	Finantzazkoa ez den gastua, 2016 (1etik	34.010.356,19



	7ra bitarteko kapituluak).	
a2	KSE doiketak.	
a3	Interesak, 2016.	39.957,62
a4	Finantzaketa lotua duen gastua, 2016.	6.183.710,62
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria, 2016	27.786.687,95
	Gastu ez finantzarioa, 2017 (1etik 7ra bitarteko kapituluak).	
b1	KSE doiketak.	33.409.968,26
b2	Interesak, 2017	31.664,66
b3	Finantzaketa lotua duen gastua, 2017	4.048.240,28
b4	Arau-aldaketen ondorioa.	
b5		
b=b1+b2-b3-b4-b5	Gastu konputagarria, 2017	29.330.687,95
c=(b/a-1)*100.	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan).	5,55

VARIACIÓN DEL GASTO COMPUTABLE		
a1	Gasto no financiero 2016 (cap 1 a 7)	34.010.356,19
a2	Ajustes SEC	
a3	Intereses 2016	39.957,62
a4	Gasto con financiación afectada 2016	6.183.710,62
a=a1+a2-a3-a4	Gasto computable 2015	27.786.687,95
b1	Gasto no financiero 2017 (cap 1 a 7)	33.409.968,26
b2	Ajustes SEC	
b3	Intereses 2017	31.664,66
b4	Gasto con financiación afectada 2017	4.048.240,28
b5	Efecto cambios normativos	
b=b1+b2-b3-b4-b5	Gasto computable 2017	29.330.063,32



$c=(b/a-1)*100$	Variación del gasto computable (en %)	5,55
-----------------	---------------------------------------	------

2017. urterako ezarritako helburua da, magnitude hori % 2,2 baino txikiagoa izatea.

Hartara, 2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak EZ DU BETETZEN gastuaren araua.

2017. ekitaldian, Diruzaintzako Gerakinetik 6.871.421,77 euro erabili dira aurrekontu-aldaketen espedienteetako kreditu gehigarri eta kreditu-gaikuntza ataletan sartutako kredituak finantzatzeko.

Gastu araua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioa izan denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluekin eta Jarraibidearen 3. arauarekin bat etorriz, Kontu-hartzaitzak berriazko txosten hau idatzi du plan ekonomiko-finantzarioaren ordean, eta Udalbatzari helaraziko dio.

2.- Azterketa: 2017 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren finantza-iraunkortasuna.

El objetivo establecido para 2017 es que la variación del gasto computable sea inferior al 2,2%.

Por lo tanto, el expediente de liquidación del ejercicio 2017 NO cumple la regla de gasto.

Por su parte, el remanente de tesorería utilizado durante el ejercicio 2017 para la financiación de los créditos incluidos en los expedientes de modificaciones presupuestarias de la modalidad de incorporación de créditos y créditos adicionales, asciende a 6.871.421,77 euros.

Habida cuenta de que el incumplimiento de la regla de gasto se ha producido como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, de conformidad con lo establecido en el artículo 5.3 de la Norma Foral 1/ 2013 y Regla 3ª de la Instrucción, Intervención ha emitido este informe específico, que se será comunicado al Pleno, el cual sustituirá al plan económico financiero.

2.- Análisis de sostenibilidad financiera de la liquidación del presupuesto de 2017.



Zor bizia.

Likidazio-espedientearekin batera doan txostenean, likidatutako diru-sarrera arruntekiko zorraren ratioa kalkulatu da: % **8,10**koa da.

2017. urterako ezarritako helburua da % **77** baino txikiagoa izatea magnitude hori.

Beraz, 2017. urteko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak BETETZEN DU finantza-egonkortasunaren helburua.

4.- Ondorioak

Aurreko azterketatik ondorio hauek atera daitezke:

- Aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzea, aurrekontu-kredituetan izandako gehikuntzak Diruzaintzako Gerakinekin finantzatzetik dator.
- Behin betiko aurrekontuak, Zor Biziko ratioa % 8,10 izanda, bermatzen du finantza-iraunkortasunaren helburua betetzea.
- Aurreko inguruabar horiek kontuan hartuta eta 1/2013 Foru Arauaren 5.

Deuda Viva

En el informe que acompaña al expediente de liquidación se ha calculado el ratio de deuda respecto a los ingresos corrientes liquidados, el cual asciende a un **8,10%**.

El objetivo establecido para 2017 es que la citada magnitud sea inferior al 77%.

Por lo tanto, la liquidación del presupuesto de 2017 SI cumple el objetivo de sostenibilidad financiera.

3.- Conclusiones

Del análisis anterior se puede deducir las siguientes conclusiones:

- El incumplimiento de la regla de gasto se debe al hecho de haber financiado con Remanente de Tesorería los incrementos en créditos presupuestarios.
- El presupuesto definitivo, con un ratio de Deuda Viva del 8,10%, garantiza el cumplimiento del objetivo de sostenibilidad financiera.
- Ante las circunstancias anteriores y según lo establecido por el Art. 5 de la



artikuluak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 8an onartutako Jarraibidearen 3. arauak ezarritakoaren arabera, Udaltzaren osoko bilkurari azalduko zaion txosten honek plan **ekonomiko-finantzario bat egitea** ordeztuko du.

Norma Foral 1/2013 y regla 3ª de la Instrucción aprobada el 8 de noviembre de 2016 por el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, este informe, del cual se dará cuenta al Pleno, sustituirá la formulación de un plan económico-financiero.

Obra, Hirigintza eta Ingurugiro Batzordetik.

De la Comisión de Trabajo de Obras, Urbanismo y Medio Ambiente.

Behin betiko onespena ematea Jardñeta kaleko 2an igogailua 0 kotara jaisteko obrak egiteko okupatu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrendari.

Aprobación definitiva de la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución de las obras de bajada de ascensor a cota 0 en Jardñeta 2.

“2017ko martxoaren 3ko Gobernu Batzarraren erabakiz, Jardñeta kaleko 2 zenbakiko jabeei lizentzia eman zitzaien igogailua 0 kotara jaisteko obrak egiteko.

“Por acuerdo de Junta de Gobierno de 3 de marzo de 2017 se concedió a los propietarios de Jardñeta número 2 licencia para realizar obras de bajada de ascensor a cota 0.

Obrek Muzategi kaleko 2B etxebizitzaren trastelekuari eragiten diotenez —eraikin azpian dagoena— eta haren jabearekin ez zenez akordio batera heldu, higiezinaren jabe-erkidegoak azaroaren 8an trasteleku horren zati bat desjabetzea eskatu zuen.

Dado que las obras afectan al trastero de una vivienda de Muzategi 2B situada bajo el edificio y no se llegaba a un acuerdo con la propiedad, la comunidad de propietarios del inmueble solicitó el 8 de noviembre la expropiación de parte del trastero afectado.



Gobernu Batzarrak, 2018ko otsailaren 23an, desjabetze-espedienteari ekitea eta ondasunen eta eskubideen zerrendari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen 15 lanegunez eta emandako epearen barruan inork ez du alegaziorik aurkeztu.

1954ko abenduaren 16ko legearen 15. artikulua —maiatzaren 28ko 8/2007 Legeak emandako idazketan— hauxe xedatzen du: publikokotzat edo interes sozialekotasunak joko ondoren, Administrazioak desjabetzearen xederako behar-beharrezkoak diren ondasunak okupatzeko eta eskubideak eskuratzeko premiari buruzko erabakia hartuko duela. Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 177 artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik, bizitegi-erakinetako etxebizitzetan irisgarritasun-baldintzak hobetzea helburutzat duten obra edo jarduketaren bat burutzea hartuko da erabilgarritasun publikotzat edo interes sozialekotasun lursailak eta eraikuntza-zatiak nahitaez desjabetzeko edo aldi baterako okupatzeko. Beraz, Jardíñeta kaleko 2an igogailua 0 kotara jaisteko obrak egitea erabilgarritasun publikotzat edo interes sozialekotasun hartu behar dira.

La Junta de Gobierno aprobó con fecha 23 de febrero de 2018 iniciar el expediente de expropiación y aprobar inicialmente la relación de bienes y derechos. Se somete dicha relación al trámite de información pública por plazo de 15 días hábiles. Durante el plazo concedido no se han presentado alegaciones.

Con arreglo al artículo 15 de la Ley de 16 de diciembre de 1954, de Expropiación Forzosa, en redacción dada por la Ley 8/2007, de 28 de mayo, "*Declarada la utilidad pública o el interés social, la Administración resolverá sobre la necesidad concreta de ocupar los bienes o adquirir los derechos que sean estrictamente indispensables para el fin de la expropiación*". De conformidad con el artículo 177 de la L.S.U se considerará de utilidad pública e interés social, a los efectos de la expropiación forzosa, o de la ocupación temporal, de los terrenos y partes de la edificación afectados, la ejecución de alguna de las obras y actuaciones recogidas en la presente Ordenanza que tengan como fin la mejora de las condiciones de accesibilidad a las viviendas en edificaciones residenciales. Deben por tanto considerarse de utilidad pública e interés social la ejecución de las obras de bajada de ascensor a cota 0 en Jardíñeta 2.



Halaber, Udal Osoko bilkurak ondasunen eta eskubideen zerrendari behin betiko onespena emango dio. Horren harira esan behar da Nahitaezko Desjabetzearen Erregelamenduko 3.4. artikulua haxe xedatzen duela: Udalak desjabetzen duenean, Udal Osoko bilkurari dagokiola desjabetzearen inguruko akordioak hartzea, administrazio- edo auzi-bidetik izaera errekurragarria duten akordioak, alegia.

Zerrenda horri emandako behin betiko onespenaren erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde honetan hedapen handiena duen egunkarietako batean argitaratu beharko da. Horrez gain, desjabetze-prozeduran interesduntzat azaltzen diren pertsona guztiei jakinarazi beharko zaie.

Lege-aholkulariaren txostena espedienteari txertatuta; espediente hau izapidetzerakoan indarrean dauden araudi guztietan aipatzen diren izapideak bete egin direla kontuan hartuta; Hirigintza eta Obra lan-batzordeak, Alberto Albistegui, Ana Telleria, Maria Isabel Larrauri eta Jon Iraola jaun/andreen baietzarekin, eta Gorka Errasti, Mertxe Gárate, Eva Juez eta M^a Jesús Aguirre jaun/andreen abstentzioarekin, udalbatzari erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

Asimismo se puede proceder a la aprobación definitiva de la relación de los bienes y derechos por el Ayuntamiento Pleno (el art. 3.4 del Reglamento de Expropiación Forzosa determina que cuando expropie el Ayuntamiento, corresponde al Ayuntamiento en Pleno adoptar los acuerdos en materia de expropiación que tengan carácter de recurribles en vía administrativa o contenciosa.)

El acuerdo de aprobación definitiva de dicha relación habrá de publicarse en el *Boletín Oficial de Gipuzkoa* y en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia. Además habrá de notificarse individualmente a cuantas personas aparezcan como interesadas en el procedimiento expropiatorio.

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico, y considerando que en la tramitación de este expediente se han observado los trámites que se relacionan en la normativa vigente, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras con los votos a favor de D. Alberto Albistegui, D^a Ana Telleria y D^a Maria Isabel Larrauri y D. Jon Iraola, y las abstenciones de D. Gorka Errasti, D^a Mertxe Gárate, D^a Eva Juez y D^a M^a Jesús Aguirre, propone al Pleno Municipal acuerde:



Aurrena: Hirigintzaren eta Lurzoruaren 2/2006 Legearen 177. artikularen arabera, erabilgarritasun publikokotzat eta interes sozialekotzat hartzea Jardiñeta kaleko 2 zenbakian igogailua 0 kotara jaisteko obrak.

Bigarrena: Behin betiko onespena ematea Jardiñeta kaleko 2an igogailua 0 kotara jaisteko obrak egiteko derrigorrean edo nahitaez hartu beharreko ondasunen eta eskubideen zerrendari.

JARDIÑETA KALEKO 2AN IGOGAILUA
JARTZEKO DERRIGORREAN OKUPATU
BEHAR DIREN ONDASUNEN ETA
ESKUBIDEEN ZERRENDA.

- ZENBAKIKO PARTZELA.

Titulartasuna: Oihana Esnaola Casado
Katastroaren izaera: Hiri-finka.
Katastroaren erreferentzia: E533A56
Erregistroaren erreferentzia: Eibarko 22974 finka.
Deskripzioa: apartamentua, garaje-sabaiaren gainean eta azpiko etxebizitzaren sabai gainean, A hizkiko etxebizitza, 2. solairuan; kaletik du sarbidea, Muzategi kaleko 2-bis pegoratik.

Primero: declarar conforme al artículo 177 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, de utilidad pública e interés social la ejecución de las obras de bajada de ascensor a cota 0 en Jardiñeta número 2.

Segundo: aprobar con carácter definitivo la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución de las obras de bajada de ascensor a cota 0 en Jardiñeta número 2 que se incluyen en la relación adjunta,

RELACION DE BIENES Y DERECHOS
DE NECESARIA OCUPACION PARA LA
EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE
INSTALACIÓN DE ASCENSOR EN
JARDIÑETA 2

- PARCELA Nº 1

Titularidad: Ohiana Esnaola Casado
Naturaleza catastral: Finca urbana
Referencia catastral: E533A56
Referencia registral: finca 22974 de Eibar.
Descripción: Apartamento sito sobre el techo de los garajes y el techo de la vivienda letra A planta 2 con acceso por la calle de situación a través del portal 2bis de la calle Muzategui. Se identifica



B hizkiarekin identifikatzen da. Banaketa hau du: atondoa, bainugela, egongela, sukalde-jangela, logela bat eta trastelekua (11,02 metro karratukoa). Haren azalera erabilgarria 91,01 metroko karratukoa da. Mugak: parean, sarrerako pasilloa, eskuman, aireztapen-makinen gela; ezkerrean, solairu honetako A etxebizitza, eta, sakonean, Muzategi kalea eta eskailerak.

Okupazioa: pegorako eskaileraren azpiko trastelekuan 4,10 metro karratuko azalera garaieran. Trasteleku horretara etxebizitzaren egongelatik sartzen da. Trastelekuaren goreneko zatian murriztuko da garaiera, eta murrizketa hori 1,45 metrokoa izango da gehien kenduko den zatian

Aldi baterako okupazioa: halaber, etxebizitza-erabilerari aldi baterako eragina egingo zaio, obrak egiteko trastelekuan sartu beharra dagoelako; proiektuak dio 5 egun inguru behar izango direla. Edozelan ere, etxera sartzeari ezinbestekoa bada, etxejabearekin adostu behar da hara sartzeko modua eta sartzeko baldintzak.

HIRUGARRENA: akordio hau Nahitaezko Desjabetze Legearen 21 artikulua azaldutako eran jakinarazi eta emango da argitara; beraz, Gipuzkoako Aldizkari

con la letra B. Se distribuye en vestíbulo, un baño, sala de estar, cocina-comedor, un dormitorio y trastero (de 11,02 metros cuadrados) Su superficie útil es de 91,01 metros cuadrados. Linda frente, pasillo de esta misma planta y fondo calle Muzategi y escaleras.

Ocupación: una superficie de 4,10 m² en altura en el trastero situado bajo la escalera del portal, al cual se accede desde la sala de la vivienda. La afección consiste en una reducción de altura en la zona más alta del trastero, siendo esta reducción de 1,45 m. en su punto más desfavorable.

Ocupación temporal: Asimismo se produce una afección temporal al uso de la vivienda por la necesidad de acceder al trastero durante la ejecución de las obras, el proyecto ha estimado la duración de esta afección en 5 días. Si fuese imprescindible dicho acceso a la vivienda se deberá consensuar con la propiedad la forma y condiciones del mismo.

Tercero: proceder a la publicación y notificación del presente acuerdo en los términos señalados en el artículo 21 de la Ley de expropiación forzosa, en el *Boletín*



Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean eta zabalkunde handieneko egunkarietako batean argitaratuko da. Horrez gain, ondasun horien titularrari bidali behar zaio jakinarazpena.

Erabaki honen kontra —administrazio-bideari amaiera ematen diona— berrazterketako errekurtoa aurkez dakioke Udal Osoko bilkurari hilabete bateko epean; edo erabakia inpugnatu edo aurkaratu hilabeteko biko epean Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, iragarki hau GIPUZKOAKO BULETIN OFIZIALen argitara eman eta biharamunetik aurrera."

5. ATALA. Eibarko EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen mozioa Hiri-antolamendurako Plan Orokorra edo nagusia berraztertu eta oin berriko eraikin edo edifizioetan aparkaleku-zuzkidura gehitzeko aukera ahalbideratzeko.

MOZIOA

"Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten dio Eibarko Udalbatzarrari, eraikin berriek aparkaleku gehiago izan ditzaten.

Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en uno de los diarios de mayor circulación. Además habrá de notificarse individualmente a los titulares de dichos bienes.

Contra el precedente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno Municipal, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa."

PUNTO 5º Moción presentada por el grupo Eibarko EAJ-PNV relativa a revisión del Plan General de Ordenación urbana para posibilitar aumento de dotaciones de aparcamiento en los edificios de nueva planta.

MOCIÓN

"El grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente moción al Pleno del Ayuntamiento de Eibar, al objeto de que los nuevos edificios tengan más aparcamientos.



ZIOA

Hiri Ordenamenduko Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen 8.3.10.04 artikularen arabera, gutxienez hiru aparkaleku egon behar dira bi etxebizitzako; halaber, aparkaleku-plaza bat egon behar da bulegoetarako erabiltzen diren laurogei metro kuadro erabilgarri bakoitzeko, edo plaza bat jendaurreko salmentarako izendaturik duten berrogeita metro koadro erabilgarri bakoitzeko (saltoki handiak) edo hamabost metro koadro erabilgarri bakoitzeko (merkataritza gunek). Gutxienezko zuzkidura da, Eibar hamarkadetan jasaten ari den aparkaleku-arazo larriari soluzioa emateko xedez ezarri zena. Hala eta guztiz ere, oin berriko eraikinak egin diren guneeetan arazo nabarmena da aparkaleku gabezia, eta, hortaz, beharrezkoa da eraikin berrien gutxienezko aparkaleku-zuzkidura berrikustea. Eibarrek aparkaleku gehiago behar ditu. Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, eraikin berrien gutxienezko aparkaleku-zuzkidura berrikusteko xedez.

AKORDIO-PROPOSAMENA

ZIOA

El artículo 8.3.10.04 de las Normas Urbanísticas del Plan General de Ordenación Urbana establece una dotación mínima de tres plazas de aparcamiento por cada dos viviendas, así como de una plaza por cada ochenta metros cuadrados útiles destinados a oficinas, o una plaza por cada cuarenta metros cuadrados útiles destinados a zona de venta al público (grandes almacenes) o por cada quince (centros comerciales). Se trata de una dotación mínima que se estableció al objeto de solucionar el grave problema de aparcamiento que desde hace décadas viene padeciendo la ciudad de Eibar. Sin embargo, las zonas en las que se han desarrollado edificios de nueva planta siguen presentando falta de aparcamiento en su entorno, por lo que resulta necesario revisar la dotación mínima de plazas de aparcamiento de nuevas edificaciones. Eibar necesita más aparcamientos. Por todo ello, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente moción al objeto de revisar las dotaciones mínimas de aparcamiento en las nuevas edificaciones.

PROPUESTA DE ACUERDO



Eibarko Udalbatzarrak premiazko izaeraz erabaki du Hiri Antolaketarako Plan Nagusia berrikustea, oin berriko eraikinetan gutxieneko aparkalekuzuzkidura handitzeko.”

6. ATALA. Irabazi taldeak aurkeztu duen mozioa etxerik ez duten pertsonentzako aterpetxea izateko premiaren inguruan.

MOZIOA

“Justifikazioa.

Hainbat egoerak eraman dezakete pertsona bat babesgabeziako eta isolamendu sozialeko egoera larrei aurre egin behar izatera. Etxerik gabeko pertsonak edo “aterperik gabek” profil zaugarriena dutenak dira, oinarrizko eskubideetako bat ez daukatelako, etxebizitza bat, alegia. Gure betebeharra da, Udal gisa, halako egoerei irtenbideak eskaintzea.

Irabazi taldean, agintaldi honen hasieratik, lehentasuntzat hartu dugu gaia eta gure herrian aterperik gabeko jendeak aterpe bat izatea eskatu dugu. Uste dugulako Udal honek eta gure herriak soluzio bat eman behar diogula benetakoa den arazo

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar acuerda estudiar con carácter urgente la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de cara a posibilitar un aumento de dotaciones mínimas de aparcamiento en los edificios de nueva planta.”

PUNTO 6º Moción presentada por el grupo Irabazi relativa a la necesidad de disponer y ofrecer un refugio de acogida para las personas sin techo.

MOCION

“Justificación.

Diversas circunstancias pueden conducir a las personas a enfrentarse a situaciones graves de desprotección y aislamiento social. Las personas sin hogar o “sin techo” se encuentran entre los perfiles más vulnerables en este sentido, por carecer de un derecho básico como es la vivienda. Es nuestro deber como Ayuntamiento ofrecer alternativas frente a dichas situaciones.

Desde Irabazi, desde el principio de esta legislatura nos hemos marcado como prioridad y hemos solicitado en este pleno la disponibilidad de un refugio en nuestro municipio para las personas sin techo. Porque creemos que este Ayuntamiento



horri, arduradun instituzional eta pertsona gisa dagokigun arazo bati. Gaur egun, gai honek erantzun sendo eta premiazko bat eskatzen du.

Baina ez da bakarrik konpromiso sozial eta gizatiarra, arauetatik datorkigun betebeharrak ere bada, Eibarrek 20.000 biztanle baino gehiago dituelako, eta, are gehiago, Eibar Debabarreneko eskualdeburu eta Euskadiko hiru hiriburuetatik distantzia berera dagoen hiri nagusia delako.

Etsexerik gabeko jendearentzako aterpetxe horretan arreta-zerbitzua ematea guztiz ezinbestekoa da bai gure udalerriarentzako, bai gure eskualdearentzako.

Bestalde, aukera ematen digu Eusko Jaurlaritzak azkenaldian proposatutakoaren ildotik lan egiteko, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan 2020ra arte arreta-zerbitzuen % 20 igotzea.

Apirilaren 19ko Bozeramaleen Batzordean ezagututako azken berrikuntzen aurrean, alegia, Udalak Ipuruako Ama Kontzeptzionisten lursailez jabetzea, eta

y nuestro municipio tenemos que ofrecer una solución a un problema que es real y que nos compromete como responsables institucionales y como personas. A día de hoy, este asunto requiere una respuesta firme y urgente.

Pero no sólo es un compromiso social y humano, sino también un deber que nos corresponde por normativa al superar Eibar los 20.000 habitantes, aún más, debido al hecho de que Eibar es cabeza de comarca del Bajo Deba y principal ciudad con una situación equidistante entre las tres capitales de Euskadi.

La prestación de servicios de acogida en dicho refugio para personas sin hogar es absolutamente imprescindible tanto para nuestro municipio como para nuestra comarca.

Por otro lado, nos permite trabajar en la línea propuesta últimamente por el Gobierno Vasco de aumentar el 20% de servicios de acogida en la comunidad vasca hasta 2020.

Ante las últimas novedades conocidas en la Junta de Portavoces de ayer mismo, día 19 de abril, para hacerse el Ayuntamiento con la propiedad de las



nahiz eta HAPOn arabera kirol ekipamendurako erabilera izan, Irabazik uste du Komentu horren zati bat erabil litekeela arreta-zerbitzu hori emateko; izan ere, baditu gelak, jangela bat, sukaldea eta halako elementuak, eta horien bidez "Etxe on" Aterpearen beharrak konpon litezke, eta Komentua berehala erabil liteke, laster Udala izango baita haren jabe.

Hortaz, proposamen honek eskualde mailako akordiorik lortuko ez balu eta Udalak ere borondate politikorik adieraziko ez balu komentuarien zati bat xede horretarako erabiltzeko, Irabazik kokaleku berri bat proposatu nahi du, oso baldintza egokiak dituen, kokapenagatik eta baldintza orokorregatik.

Horretarako, honako MOZIO hau aurkezten dugu.

Eibarko Udaltzarrak uste du etxerik gabeei arreta emateko leku baten beharra ezin dela gehiago luzatu.

Concepcionistas de Ipurua y a pesar de dedicarse el mismo a Equipamiento deportivo, según el PGOU, Irabazi piensa que una parte de ese Convento podría aprovecharse para este lugar de acogida, ya que dispone de celdas, comedor, cocina y elementos comunes, que podrían resolver con inmediatez las necesidades del Aterpe "Etxe on" y podría disponer enteramente del uso del Convento al ser el Ayuntamiento su propietario, en breve.

Pues bien, si no hubiere un acuerdo comarcal para esta propuesta, y tampoco se expresara una voluntad política por parte del Ayuntamiento para dedicar parte del convento a tal fin, Irabazi desea proponer una nueva ubicación que reúne también unas condiciones muy adecuadas por su ubicación y condiciones generales.

Para ello, presentamos la siguiente MOCIÓN.

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar considera que la necesidad de adecuación de un lugar de acogida en nuestro municipio para las personas sin techo es ya inaplazable.



Horregatik, Komentuaren zati bat erabiltzerik ez bada, Udal Gobernuari honako hau eskatzen dio:

1. Balora ditzala udal espazioak, aterpetxe gisa balio dezaketenak, ondoren espazio hori martxan jarri ahal izan dadin. Zehatzago, Ipuruako merkatu zaharra, Argatxako Jardinetan kokatua, eta Udalarena dena. Haren egoera, neurriak, barruko banaketa, eta kokapena...; itxura batean, oinarrizko baldintzak betetzen dituzte, eta egokiak dirudite erabilera horretarako; gainera, haren egokitzapena ez litzateke inbertsio larregizkoa izango Udalarentzat.

2. Xede horretarako udal espazioaren lagapena eta haren egokitzapena Eskualdearekin adostuko dira.

3. Behar besteko diru-asignazioa ezartzea, aterpea martxan jartzeko eta mantentze-lanetarako; zenbateko horretan bitarteko materialak eta giza bitartekoak sartuko dira, herriko eta eskualdeko aterperik gabekoei behar dituzten zerbitzuak eskaintzeko.

Por ello, insta al Gobierno Municipal, si no es posible el uso de parte del Convento a:

1. La valoración de espacios municipales que sirvan como refugio de acogida para posterior puesta en marcha de la adecuación de ese espacio. Concretamente, el antiguo mercado de Ipurua, situado en la calle Jardines de Argatxa, propiedad del Ayuntamiento. Su estado, sus dimensiones, su distribución interna, así como su propia ubicación, parecen reunir los requisitos básicos, siendo los mismos adecuados y deseables para este uso, sin que suponga su adecuación, además, una inversión exagerada para el Ayuntamiento.

2. La cesión del espacio municipal consignado para este fin, así como su adaptación a dicho propósito, se consensuará con la Comarca.

3. Una asignación suficiente para su correcta puesta en marcha y mantenimiento, que incluya recursos materiales y humanos para ofrecer los servicios necesarios a las personas sin hogar del municipio y la comarca.



4. Ildo horretatik, egin dadila lan-plangintza bat Debabarreneko eskualdearekin lankidetzan eta harekin partekatua, kontratatutako pertsonalaren organigrama eta aurrekontu-funts bat jasoko duen akordio baten bitartez.

Irabazi konprometitu egiten da egitasmo honen alde une oro lan egitera, eta beharrak ezartzeko orduan aukerak eta aldaketak elkarrekin baloratzera, etxerik ez duten pertsonen aterpetxea zuzen baloratzeko, haren egokigarritasuna aztertzeko, martxan ipintzeko eta mantentzeko.”

4. En ese sentido, un plan de trabajo de coordinación y compartido con la comarca del Bajo Deba, mediante un acuerdo que incluya un organigrama del personal contratado y un fondo presupuestario.

Irabazi se compromete a colaborar y apoyar en todo momento con este proyecto, así como a valorar conjuntamente las posibilidades y variaciones a la hora de establecer las necesidades para la correcta valoración, adecuabilidad, puesta en marcha y mantenimiento del refugio de acogida para personas sin hogar.”